



# Baldarrak

Unai Mendizabal Jauregi

Herrian gertatu diren erorketa tontoak kontatuko dizkigu Unai Mendizabalek, koplatan.

***Doinua: Hona bildots ezitia***  
**Kopla txikia**

**Gure herrian bada baldarra ugari berriz deitu diogu anbulantziari.**

- 1 Pasatzen ari zela etxean **fregona** irristan hankaz gora joan da **amona**.
- 2 Jon traktoretik behera jausi da, **begira** ximaur pila gainera buruz **erori da**.
- 3 Loreak ureztatzen ari zen **izeba** ta nahi gabe erori da balkoitik **behera**.
- 4 Postariak eskerrak zeraman **kaskoa** farola bat jo eta hautsi du **motoa**.
- 5 Anek sudurra hautsi du pareta **jota** lokarriak lotzea ahaztu **zaio ta**.
- 6 Leireri kuleroak ikusten **zaizkio** txakurrak ipurdian koxk egin **baitio**.
- 7 Udaltzaina zuzentzen kotxe **trafikoa** putz egin ta irentsi du **txilibittoa**.
- 8 Anbulantzia ere dabil hola **hola** aldapan behetik gora jo baitu **arbola**.
- 9 Nahiz herriko mozkorrak duen fama **txarra** bera da minik hartu ez duen **bakarra**.